

NOLA EGIN POWER POINT BAT?

Ezbairik gabe, azaldu nahi dugun hori erakusteko modurik onena hura argituko duen material grafikoa erabiltzea da. "Hobeki irudi bat ehun hitz baino": halaxe dio esaera zaharrak. Hori dela-eta, hori egiteko tresnarik onenetakoa diapositiben aurkezpen bat egitea da.

Aurkezpen bat egiteko aplikazioak ez dira gutxi. Hala ere, denetan onena Officen dagoena da: Power Point (PPT). Artikulu honetan ezagutuko dugu nola egin diapositiben aurkezpen bat programa hori erabiliz.



NOLA EGIN POWER POINT BAT, URRATSEZ URRATS


- 1. urratsa:** Lehenik, sartu Power Pointen eta sakatu "Berria", "Fitxategia" menuan.
- 2. urratsa:** Hor zaudela, leiho bat irekiko da eta hartan zenbait txantiloia agertuko dira, baita hutsik dagoen aurkezpen bat ere. Hautatu azken hau.
- 3. urratsa:** Zuriz dagoen aurkezpenean, sakatu edozein testu-kaxatan, idatzi beharrekoa gehitu dezagun. Testu hau alda daiteke guk nahi dugunera egokitzeko. Horretarako, joan "Etxea" erlaintzera eta erabili "Letra-tipoa" eta "Paragrafoa" aukerak.
- 4. urratsa:** Testu-koadro bat gehitzeko, sakatu "Txertatu"n eta, gero, "Testua" eremuko "Testu-koadro"an. Kokapena aldatu nahi izanez gero, saguarekin arrastatu; besterik ez. Irudiak, formak, taulak, bideoak edo audio-fitxategiak gehi ditzakegu aurkezpenean, "Txertatu" erabiliz.

TRANSIZIOAK

Aurkezpen bat egiten dugunean gauzarik garrantzitsuenetako bat trantsizioak dira; trantsizioei esker azalpenean geldialdi bat egin dezakegu edo puntu batetik bestera pasatu. Trantsizioak gehitzeko, honakoa egingen dugu: "Trantsizioak" aukeraren gainean klik egin eta koadroan ageri diren trantsizioetako bat aukeratu. Era berean, soinuak gehi ditzakegu, trantsizioari laguntzeko. Horretarako, sartu "Soinua" aukeran.

DIAPOSITIBEN DISEINUA ALDATZEA

Power Pointeko aurkezpenaren itxura aldatzeko, leihoaren goialdean dagoen "Diseinua" aukera hautatu behar dugu. Hala, aurkezpenaren egokitzen globaletako asko azkar aldatzeko aukera izanen dugu, hala nola letra-tipoa eta tamaina, trantsizioaren efektuak eta



bestelakoak. Halaber, diapositibaren orientazioa ere alda dezakegu (bertikaletik horizontalera edo alderantziz). Horretarako, "Diapositibaren orientazioa" izeneko aukerari sartu behar da.

DIAPOSITIBAK GEHITZEA, ORDENAZ ALDATZEA ETA EZABATZEA

Power Pointen tituluak eta azpitituluak dituzten diapositibak gehitzeko, "Etxea"n sakatu behar da eta, han gaudela, "Diapositibak" aukeratu. Han gaudela, sakatu "Diapositiba berria"n. Menu bat irekiko da aukeratu hauekin: "Titulua", "Titulua eta edukia" edo "Edukidun titulua". Guk nahi dugunari ongien egokituak diapositiba-mota aukeratu dugu eta berehala agertuko da proiektuan eskuragarri dauden diapositibaren zerrendan. Diapositibak arrasta ditzakegu haien ordena aldatu edo ezabatzeko. Behin diapositibak nahi dugun moduan jarri eta moldatu ditugula, arrasta ditzakegu haien ordena aldatzeko edo diapositibak aukeratu eta "Supr" tekla sakatu dezakegu ezabatzeko.

BUKATZEKO

Behin diapositibak guk nahi bezala ezarri eta aldatu ondoren, aurkezpenarekin hasteko unea da. Horretarako, "Diaporama" aukeratu sakatu dugu eta, gero, "Hasiaraz" itoma hautatu dugu.

Diapositiba bakoitzean aurrera egiteko, saguaren botoian egingen dugu klik. Aurkezpena gelditu nahi badugu, egin klik "Esc" tekla.

<https://tecnologia-facil.com/como-hacer/como-hacer-un-powerpoint/> [Egokitu].

11. Zer da POWER POINT?

- A. Aurkezpenak antolatzen dituzten webgune bat.
- B. Bideo jokoak eta bestelako irudi-baliabideak diseinatzeko erreminta bat.
- C. Bideoak testu idatzi batean sartzeko aplikazio bat.
- D. Diapositiben aurkezpenak egiteko aplikazio bat.

12. Nola gehitzen dira audio-fitxategiak aurkezpen batean?

- A. "Txertatu"n sakatuz.
- B. "Trantsizioa"n sakatuz.
- C. "Diapositiba berria"n sakatuz.
- D. "Esc" tekla sakatuz.

13. Aurkezpen batean, zergatik dira garrantzitsuak trantsizioak?

- A. Letra-tipoa aldatzeko aukera ematen digutelako.
- B. Geldialdiak egiteko edo beste puntu batera pasatzeko aukera ematen digutelako.
- C. Haiekin aurkezpenaren itxura alda daitekeelako.
- D. Haiekin tituluak eta azpitituluak gehi daitezkeelako.

14. Zertarako balio du "Txertatu" jarraibideak?

- A. Irudiak eta taulak gehitzeko.
- B. Testu-koadro baten kokapena aldatzeko.
- C. Audio-fitxategiak entzuteko.
- D. Letra-tipoa aldatzeko.

15. PPT aurkezpen batean, nola aldatzen da diapositiba baten ordena?

.....

.....

16. Zertarako erabiltzen da “Esc” tekla, testuan adierazten den arabera?

.....

.....